



2020ko abendua

HIRIETAKO MUGIKORTASUNA, OSASUN-SEGURTASUNERAKO ETA KLIMARA EGOKITZEKO ERRONKA

Pertsonen eta salgaien mugikortasuna ekoizpen- eta kontsumo-eredu globalizatuaren “gordiar korapiloa” da. Hiriek aldaketa sakonak behar dituzte pertsonen zerbitzura antola daitezen. Hirietan oinez eta bizikletaz seguru ibili ahal izatea denok nahi dugun autonomiaren, osasunaren eta askatasunaren faktoreetako bat da, eta udal-administrazioek eta udalez gaindikoek premia aurre egin behar izan diote COVID-19aren pandemiak agerian jarri duen funtsezko alderdi horri. Erantzunak intentsitate eta ardura ezberdinekoak izan dira, eta dira. Hainbat eta hainbat erakundetatik aldarrikatutako larrialdi klimatikoaren eraginez goitik behera ari dira aztertzen garraio- eta mugikortasun-politika publikoak.

Hor dago Ziklotekan COVID-19arekin lotuta sortutako ekintza onen biltegia (150 dokumentutik gora dira), eta ZikloBerriak edizio honetan klima-aldaketaren aurkako borrokaren “ahulgunea” denari, hau da, mugikortasunari, buruzko hainbat erreferentzia jaso ditugu, eta bertan ikus daiteke bizikletaren erabilera nola ari den bere lekua irabazten garraioefiziente, seguru eta osasungarri moduan.



DOKUMENTUEN AUKERAKETA

Gaur egun, 4.000 dokumentutik gora bilduta ditugu gure datu-basean. Jarraian duzue bildutako nobedade nagusien erreferentzia labur bat:



La niña que paró el tránsito

Egilea: Fabrício Valério. **Ilustratzailea:** Bruna Assis Brasil. V&R Editoras. 2019

Ipuin ilustratu honetan, haur batek kale baten erdian, non auto, autobus eta motorrak joan-etorri azkar eta frenetiko batean dabiltzan, bere bizikleta gelditzen duenean zer gertatzen den kontatzen da. 5 urtetik aurrera gomendatzen da. *ConBicik gomendatua.*



Bizikletaren liburu zuria. Bizkaia bizikletaz mugitzen da

Bizkaiko Foru Aldundia. 2020

Hainbat neurri deskribatzen dira modu praktikoan, eta bizikletaren erabilera bultzatzearen premiaz jabetuta dauden erakunde guztientzat baliagarriak izan daitezkeen neurriak dira.

Horrez gainera, bultzada hori homogeneoa izan dadin, udalekin eta gizarte-erakundeekin koordinatuta jardutea lortu nahi da. Hori posible egiteko alderdiak ere bilzen dira, eta honako galdera hauei erantzun nahi zaie: Zein da egungo egoera? Zergatik nahi dugu Bizkaia bizikletaz mugitzea? Nola lortuko dugu hori?



Tú, una bici y la carretera


Eleanor Davis. Astiberri. 2019

Komiki honetan, egileak Estatu Batuak bizikletaz zeharkatuz egindako bidaia islatzen du, bere burua ondo ez dagoen bizitzako etapa batean bait dago egilea eta erronka hori proposatzea erabakitzen du. Bi hilabeteko ibilbidea bakarka, 80 kilometro arteko jardunaldiak, 2.500 km inguru. Gaintitze-bidaia pertsonalaz gain, bere sentimenduez eta sententziaz hitz egiten digu, baita elkartasunaz, immigrazioaz eta aktibismoaz ikasi duenez ere. *ConBicik gomendatua.*

Bizkaiko Lurraldeko Bizikleta-bideen Plan Sektoriala 2023-2035. Aurrerapen Dokumentuaren laburpena.

Bizkaiko Foru Aldundia. 2020

Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapen Dokumentua –hasierako onarpenaren aurreko dokumentua– lurralde-antolakuntzako tresna bat da, eta bertan planaren hausnarketa-esparrua ezartzen da eta adostutako aldirako (2023-2035) Bizikleta Bideen Sare Funtzionaltaren proposamena eta helburuak zehazten dira. Era berean, sare horren garapenera oinarriak aurreratzen dira bertan, eta hori ezartzeko eta, orokorrean, bizikletaren erabilera sustatzeko beharrezko tresna estrategikoak eta kudeaketakoak zehazten dira.



Wanderlust. Una historia del caminar

Rebecca Solnit. Capitán Swing. 2015

Oinez ibiltzeak ematen dituen era askotako hainbat eta hainbat aukera jaso dira liburuan, eta anomiaren bilakaeratik hasi eta hirien diseinura arteko gaiak aztertzen dira. Egilearen esanetan, agerian geratzen da oinez ibiltzearen eta pentsamenduaren arteko erlazio argia.




BicitoPIÁS. Hacia una antropología de la movilidad urbana.

Koord. Macarena Hernández. Universidad Pablo de Olavide. 2016

Dokumentu honetan “Mugikortasun jasangarria Andaluzian: praktikak eta diskurtsoak bizikletaren erabileran” proiektuaren ondorioetatik eratorritako 14 azterketa-kasu jasotzen dira. Proiektuan, hiri-jasangarritasuna, oro har, eta bizikletaren erabilera sozialak, bereziki, aztertzea proposatzen zen. Garraio jasangarriaren alorrean herritarrek egiten dituzten praktikak eta horren inguruan dauden diskurtsoak aztertu ziren, “jendeak bizikletarekin egiten duena” eta jendeak “bizikletaz diona” egiztatzeaz gain.



Recomendaciones para coordinar las ordenanzas municipales sobre la circulación y aparcamiento de bicicletas, vehículos de movilidad personal y ciclos de más de dos ruedas. 

Red de Ciudades por la Bicicleta. 2020

Dokumentu honen abiapuntua da koordinatuta arautu behar dela bizikleten, patineteen eta beste-lako zikloen zirkulazioa, bizikletari eragiten dioten ordenantzak eguneratzen eta homogeneizatzen laguntzeko helburuarekin, eta agertu berri diren mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak ere kontuan izanda. Lehendik dagoen araudiaren analisitik, Estatu-ko arauketak eskaintzen dituen aukeretatik, beste esperientzia batzuetako informazioaren azterketatik eta metatutako jakintzatik abiatuta, tokian tokiko araudia egokitzeko hainbat gomendio biltzen dira bertan.




La emergencia de la movilidad ciclista en las ciudades 

Habitat y Sociedad aldizkaria, 13. zenb. 2020


Egiatzen ari da bizikleta ikuspegi sozialetik eta ekonomikotik eraginkorra den garraibidea dela, eta hirietako bizigarritasun-estandarrek nabarmen hobetzen laguntzen duela. Azken urte honetan, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak beste bultzada bat eman dio mundu osoko hirietako bizikleta bidezko mugikortasunari. Ale monografiko honetan hirietako bizikleta bidezko mugikortasuna ageriratzearen analisi interesgarria egiten da, ikuspegi ezberdinetatik kezka bat bera partekatzen duten 10 artikuluren bidez: nola lortu hiriak bizitzeko leku egokiagoak izatea.



Pandemia garaia eta oinez eta bizikletan ibiltzeko hiriak 

Cristina Enea Fundazioko Iraunkortasunaren eta Klimaren Behatokia. 2020

Apunte Koaderno honetan biltzen dira pandemiaren testuinguruan pertsonak oinez eta bizikletaz seguru ibiltzeko hiri askotan abian jarri diren ekimenen inguruko hainbat hausnarketa. Lau pertsona aritu dira testuak idazten: Ana Montalbán, Ciudades que Caminan sarekoa; Laura Vergara, ConBici – Bizikletaren aldeko koordinakundekoa; Silvia Casorrán, Ciudades por la Bicicleta sarekoa; eta Sonia Jichi, Andando – Oinezkoen erakundearen estatuko koordinakundekoa.



CICLOSFERA#33 

Hiriko txirrindularitzak ekonomian izan dituen ondorio positiboen, Parisen bizikletak izan duen gorakadaren eta ziklo-bidaiari eta abenturen inguruko istorioak biltzen ditu zenbakiak. Bizikleta-erakundeetako maitasun unibertsal eta aitortuarekin, aldizkariak kultura, arkitektura edo bizikletak bere arrasto positiboa uzten duen gure gizarteko edozein esparruri egiten dizkion ohiko keinuak biltzen ditu. Portada Eliza Southwood ilustratzaile britainiarrek egina da.

ALBISTEAK

2030erako Mugikortasun Seguru, Jasangarri eta Konektatuaren Estrategia burutu da



Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak (MITMA) 2030erako Mugikortasun Seguru, Jasangarri eta Konektatuaren Estrategia garatu du, eta MITMAk datozen 10 urteotan mugikortasunaren, azpiegituren eta garraioen arloan jarraituko dituen jarduketak bideratuko ditu. *Diálogo Abierto de Movilidad* atalaren bidez mugikortasunaren ekosistemako eragile guztiak mugikortasunaren eta garraioaren erronkei buruz hitz egiteko prozesu parte-hartzaile bat sortu da.



Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak gidatu eta koordinatuko du Bizikletaren Aldeko Estatuako Estrategiaren ezarpena



Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia-rekin adostuta egingo du. Estatuako Aurrekontu Orokorretan 5 milioiko kontu-sail bat izendatu da Estrategia hau gauzatzeko eta gobernantza-plana abian jartzeko. 2021ean aztertu eta lehenetsiko dira Estrategian planteatutako jarduketak, eta 2022an ekingo litzaioke bere exekuzio-faseari.

Aragoik Bizikletaren Erakundearteko Mahaia eratu du



Mahaia Bizikletaren Aragoiko Estrategiaren jarraipena koordinatuko du.

Donostiako Udaren bizikletak alokatzeko sistema berria



Dbizi sistema berriak aurreko sistemak baino sare zabalagoa dauka, 46 geltokirekin eta 437 bizikleta-rekin. Bizikleta horietatik 120 elektrikoak dira eta 317 mekanikoak. Geltoki guztiak mistoak dira, hau da, bizikleta mekanikoak zein elektrikoak hartu eta utzi ahal izango dira puntu berean. Bono arruntak eta noizean behingoak ere badaude, aldi berean indibidualak edo taldekoak izan daitezkeenak; azken hauek familia, talde eta enpresentzat bideratuak.

Bizikletaren aldeko Hirien Sarearen webinarra



Jardunaldi teknikoa, pandemian egindako jardueri buruzkoa, eta hirietan bizikletaren erabilera sustatzeko esku hartzen nola jarraitu jakiteko hausnarketak.

AGENDA

CICLOBCN21



2021eko urriaren 5etik 10era bitartean bizikletari buruzko hiru biltzar egingo dira Bartzelonan:

- EuroVelo eta Zikloturismoa 2021 Batzarra: zikloturismoari buruz mundu osoan egiten den batzarrik garrantzitsuenak.

- *Bizikleta eta hiria* XVII. Biltzar Iberiarra: Espainian eta Portugalen bizikletarekin erlazionatuta dauden berrikuntzak eta esperientziak aurkeztuko dira bertan.

- Kataluniako Bizikletaren Nazioarteko VII. Biltzarra: bizikletaren munduarekin erlazionatutako berrikuntzak aurkezteko Kataluniako foro nagusia.

Velo-City 2021



Lisboa. Ekainaren 1etik 4ra.


Velo-City urteko batzarra munduko erreferentea da hiriko txirindularitzaren sektorean. Txirindularien Europako Federazioak (ECF) antolatzen duen biltzar honek txirindularitzaren arlo ezberdinak, txirindularitzarekin lotuta dauden azpiegiturak, berrikuntzak, segurtasuna, eta abar, eta esparru horietan gertatzen ari diren aldaketa sozialak eta kulturalak hartzen ditu bere baitan.

CICLOBCN21

Pedaleando ciudades y territorio
Barcelona, 5-10 octubre 2021



CYCLE DIVERSITY
LISBOA 1-4 JUNE 2021



Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazioa Zentroa

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunen espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak biltzen ditugu, baina, horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektronikoko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazioa Zentroa

Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia
943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | www.cristinaenea.eus/zikloteka

Ordutegia:

Astelehenetik larunbatera: 09:30 - 13:30 h. / 15:00 - 19:00 h.

Igande eta jai-egunak: 10:00 - 13:30 h.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro